

Irurtzunen, bi mila eta bederatziko martxoaren zazpian, goizeko hamarrak direnean, Ezohiko Bilkura egitearren Irurtzungo Udaleko Udalbatza, legeak agintzen duen moduan deituta, Batzar-gelan elkartu da Juan Jose Iriarte Vitoria alkate-lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

Francisco Goicoechea Arbizu
Jose Javier Recalde Maestre
Saray Ongay García
Jose Luis Viñas Estudillo
Xabier Unanua Goicoechea
Jose Peinado Cuesta
Luis Enrique de la Calle Moreno
Maria Nieves Uterga Juango
Eduardo Murugarren Frances
Francisca Arruabarrena Quintana

Eta idazkaria naizen hau, Santos Iragui Hualde.

AURREKO BILKURAREN AKTA ONETSI

Bilkurari hasiera emanda, udalburuak deialdiarekin batera banatu den 2009ko otsailaren 24an egindako Bilkuraren Aktari zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion galdetu du. Oharririk egin ez zaionez, aho batez onartu da.

ALKATETZAK HARTUTAKO ERABAKIEN IRAKURKETA

2009ko otsailaren 25az geroztik Alkatetzak eman dituen Ebazpenak irakurri dira eta, honenbestez, zinegotziak jakinaren gainean daude.

UDALAREN EKIPAMENDURAKO ERAIKINEKO LANAK KONTRATATZEA

Administrazio Publikoetako Ministerioak baimendutako Toki Inbertsioetarako Estatu Funtseko baliabideekin finantzatuko den udal ekipamendurako eraikin bat egiteko lanak kontratatzeari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2009ko martxoaren 5ean egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, honako hau erabaki da aho batez:

1.- Udal ekipamendurako eraikina egiteko proiektua, Juan Antonio Ascunce Izuriaga arkitektoak idatzia, onartzea. Aurrekontua 389.374,00 euro da (BEZ barne).

2.- Lan horiek zuzenduko duten Administrazio Baldintzen Plegua onartzea. Lanak prozedura ireki bitartez esleituko dira.

LANA ETA FAMILIA UZTARTZEKO UDALEKO LEHEN ITUNA

Lana eta familia uztartzeko udaleko lehen itunari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2009ko martxoaren 5ean egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, honako hau erabaki da aho batez:

1.- Aipatu ituna sinatu izana berrestea. Alkateak sinatu zuen udalaren izenean pasa den otsailaren 27an beste 14 talderekin batera.

2.- Ituna sinatu izanaren ondorioz sortutako eginkizunak eta ardurak barneratzea, Irurtzungo emakume eta gizon guztiei lana eta familia uztartzea ahalbidetzeko estrategiak sustatze aldera.

SAKANAKO MANKOMUNITATEKO GARAPEN BATZORDEKO ATALAK

Sakanako Mankomunitateko Garapen Batzordeko Zuzendaritza Batzordeak osatzen dituen Gaikako Batzordeetarako Udaleko ordezkariak izendatzeari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2009ko martxoaren 5ean egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, honako hauek izendatzea erabaki da bozketarik gabe:

- Juan José Iriarte Vitoria izanen da Irurtzungo Udalaren ordezkaria "Industria eta Enplegua" Gaikako Batzordean.
- José Luis Viñas Estudillo izanen da Irurtzungo Udalaren ordezkaria "Gizarte Gaiak" Gaikako Batzordean.
- Luis Enrique de la Calle Moreno izanen da Irurtzungo Udalaren ordezkaria "Ingurumena" Gaikako Batzordean.

HILERRIKO HORMA-HILOBIEN EMAKIDA

Hilerriko horma-hilobi bat emateari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2009ko martxoaren 5ean egindako bilkuran onartutako proposamenarekin, aho batez onartu da hilerriko 112. zenbakia duen horma-hilobia Petra García Romerori esleitzea.

ALKATETZAREN PROPOSAMENA KORRIKA 16 DELA-ETA

Alkatetzaren proposamen hau irakurri da:

"Alkatetzaren proposamena Korrika 16an kilometro bat erosteko. Euskara Batzordeak, 2009ko martxoaren 2an egindako bilkuran, gutxieneko partaide-kopurua ez zegoelako afera honi buruzko irizpena ematerik izan ez zuenez, egokia da Alkatetzaren proposamen gisa aurkeztea.

Proposatzen den akordioa da Korrika 16an kilometro bat erostea 500,00 euroan, 2008ko Aurrekontu luzatuko 4510.48201 kontu sailaren kargura."

Proposamena eguneko aztergaietara sartzearen inguruko bozketa eginda, aho batez onartu da.

Jarraian, oraingoan ere aho batez, honako hau erabaki da:

1.- Alkatetzaren proposamenean jasotakoaren arabera, Korrika 16an kilometro bat erostea onartzea.

2.- Dagokion Batzordeari hartutako erabakiaren berri ematea, Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren -AJA- 126.2 artikuluan xedatutakoa betez.

Erabakia hartuta, Arruabarren andreak Korrika Irurtzundik pasako den egunerako (martxoaren 28a) antolatuta dauden ekitaldien berri eman du; besteak beste, Txan Magoa, aperitiboa, musika, Erraldioen konpartsa, suziriak eta herri bazkaria.

BATZORDEEN INFORMAZIOA

Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumena.

Udalburuak jakinarazi du Urbasa kaleko urbanizazio lanak egiten ari den enpresari esleituko zaiola Ardubil kaleko zoladura konpontzeko lanak;

izan ere, azken kale horretan kalteak nabarmenak dira. Esan du, alde zurretik kale horretako bizilagunekin bilera egingen dela.

Bestalde, esan du garai bateko Plazaola trenaren Artadiako tunela egonkortzeko lanak Ingurumen, Landa eta Itsas ingurunearen Ministerioak gauzatuko dituela zuzenean.

Azkenik Plazaolaren Natur Bideari buruzko argibideak eman ditu. Bidea Ingurumen, Landa eta Itsas Ingurunearen Ministerioaren lehentasunezko inbertsio bihurtu da, eta Europako Erkidegoaren finantziazioa du. Proiektua aurrean idatziko dela, eta, gerora, lanak egingen direla esan du, lurrak erosteari buruzko, eta/edo desjabetzeari eta Udalez Gaiendiko Plana onartzeari buruzko aferak konponduta. Horiek sustatzea planaren eraginpean dauden udalei dagokie.

GALDE-ESKEAK

Murugarren jaunak galdetu du zergatik ez den jaso saihebidetue proiektuari aurkeztutako alegazioetan (otsailaren 24ko osoko bilkuran onartuak), landare hesi bat goratzea pasealekuaren eta saihebidetuearen beraren eta industrialdearen arteko eremuan. Esan du gai hori Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordean aztertu zela otsailaren 20ko bilkuran.

Udalburuak esan du puntu hori, Murugarren jaunak esan bezala, batzordean aztertu zela, eta bat datorrela lanak gauzatzeko proiektuan aipatu landare hesia paratzea eskatzearekin.

Aztergai gehiagorik ez dagoela, eta goizeko hamarrak eta hogeitun minutu direnean, udalburuak bilkura amaitutzat jo du. Idazkari naizen honek bilkuren Akta jaso, eta horren Egiaztapena egiten dut.